

goierriko hitza

TITULARRAK | AGENDA | EZTABAIDA | ZERBITZUAK | IRUDIETAN | MERKATU TXIKIA | AGURRAK | TXOKOA | ZEUK IDATZI | BE

GOIERRI

Altzaga
Arama
Ataun
Beasain
Ezkio-Itsaso
Gabiria
Gaintza
Idiazabal
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Mutiloa
Olaberria
Ordizia
Ormaiztegi
Segura
Urretxu
Zaldibia
Zegama
Zerain
Zumarraga

hitza

Tolosaldeko
Hitza
Oarsoaldeko
Hitza
Urola Kostako
Hitza
Irutxuloko
Hitza
Busturialdeko
Hitza
Lea-Artibaialdeko
weba

[Eman izena](#)
[Hitza](#)
[jasotzeko](#)



BEASAIN

[BEASAIN](#) » [UDALA](#)

«Txartel gehiago ez, mesedez»

Beasaindarrek txartel bakarra dute administrazioarekiko harremanetarako

MAIDER DEL OLMO

Kiroldegirako txartela, liburutegikoa, osasun zerbitzuetakoa... Txartelak besterik ez dira pilatzen herritar askoren diru-zorroetan. Gurasoen kasuan, gainera, norberaren txartelei umeenak ere gehitu behar zaizkie; kontuak egiten hasita, beste hainbeste orduan.

Beasainen txartel bateratua sustatzeko ekimena jarri du abian Eusko Jaurlaritzak, EAEko beste bi herrietan bezala. Dertean LegazpiD, froga gisa. Ekimenak herritarren artean zein erantzun duen ikusi nahi dute, gero beste herrietara zabaltzeko.

Osasun Txartel Elektronikoaekin Antzizar kiroldegira sar daitezke beasaindarrek, liburutegian liburuak hartu, errenta aitortpena kontsultatu, mediku ordua hartu... Azken batean, administrazioarekiko harremanetarako eta gestiorako balio du txartelak; hala nola, Beasaingo Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Espainiako estatuko administrazioarekin gestioak egiteko.

Ekainetik dago martxan Beasainen osasun txartel elektronikoa, eta helburua herritarrei txartel bateratua eskaintzea dela adierazi dute sustatzaileek, zorroa txartelez beteta izatea inorentzat erosoa ez dela kontuan izanda.

Beasaingo Udaletik adierazi dutenez oraindik goiz da jendeak ekimena nola hartuko duen esateko, baina eskaintzen dituen abantailengatik pixkanaka zabalduz joango dela uste dute. Joera txartel bateratuak bultzatzea izango dela erantsi dute. Osasun Txartel Elektronikoa 16 urtetik gorakoentzat da. Gazteagoei Herritarren Txartela deitua ematen diete, era berean erabilera askotarako dena.

Antzizar kiroldegian 2.500 txartel egin dituzte jada. Hamasei urtetik gorako bazkide beasaindarrek aurrerantzean Osasun Txartel Elektronikoaekin sartu beharko dute. Adin horretatik beherakoek beste txartel bat izango dute. Kiroldegitik azaldu dutenez, «oraindik bazkide guztiek ez dute eskuratu Osasun Txartel Elektronikoa, baina gehienek bai». Tramitazioarako bulegoa jarri dute kiroldegian bertan, honako ordutegiarekin: astelehenean, goizez 07:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara; asteartetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan 10:00etatik 14:00etara. Txartela egiteko beharrezkoa da Beasainen erroldatuta egotea eta tramitazioarako Nortasun Agiria eta Osakidetzaren txartela eraman behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero honako telefono zenbakira dei daiteke: 943 88 79 00. Txartela egin ondoren aktibatu egin behar da erabili ahal izateko, kiroldegitik esan dutenez.

TXARTELA

Osasun Txartel Elektronikoa 16 urtetik gorakoentzat da; gazteagoei Herritarren Txartela emango diete



handitu

> H
AR.
bur
28)

> E
ZUI
erak

>

Ant
zen

T
 T
oi
 F
 Ir

C

>> BIDALI ZURE IRITZIA